

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

LEHENENGO KAPITULUA

ELKARTEAREN DEITURA

1. **Artikulua.** Irabazi-asmorik gabeko IBARRAKO KOROA ELKARTEA (IK), izeneko elkartearen eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoaren arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorriz.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organismoek behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

PROPOSATZEN DITUEN HELBURUAK

2. **Artikulua.** "Ibarrako herrian, kantuen praktika eta kultura musikala bultzatzea" dira Elkartea honen helburuak.

Helburu hauek lortzeko, Legeak eta Estatutuak diona kontuan hartuz, ekintza desberdinak burutuko dira:

- Era desberdinetako jarduera ekonomikoak, bere helburuak bideratzeko edo burutzeko.
- Eskuratu eta lortu era desberdinetako errekurtsu, ondasun edo ekipok.
- Burutu era desberdinetako ekintza eta kontratuak.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. **Artikulua.** Elkartea helbide nagusia, Zaldune etxetalea 10-4 ezk., 20400 Ibarra, (Gipuzkoa) izango da.

Elkartea, beste lokal batzuk izan ditzake Autonomi Elkarteko beste herri batzuetan, Batzar Orokorrak horrela erabaki ezker.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T20P9-T3W5 bilagailua erabilia, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektronikoa honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea> 1

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T20P9-T3W5 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

LURRALDE ESPARRUA

4. **Artikulua.** Nagusiki, bere funtzioak garatuko diren lurralde esparrua, Euskal Elkarte Autonomia izango da.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

5. **Artikulua.** Elkartea izaera iraunkorrez osatzen da, eta bakarrik deuseztatuko da Ezohizko Batzar Orokorraren akordioaren bidez, seigarren kapituluan agertzen den bezala edo Legeak aurreikusten duen beste zergatiagatik.
- Elkartearen barruko antolaketa eta funtzionamendua demokratikoa izan behar du, aniztasuna guztiz errespetatu behar du. Baliogabetuta egongo dira Elkartearen eskubide nagusiak kontuan hartzen ez dituen paktuak, estatutuen xedapenak eta akordioak.

BIGARREN KAPITULUA

AGINTE ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

6. **Artikulua.** Elkartearen Gobernua eta Administrazioa aipatzen diren kide anitzeko organoen ardurapean egongo dira
- Bazkideen Batzar Orokorra. Hau izango da organo gorena.
 - Zuzendaritza Taldea. Hau izango da kide anitzeko zuzendaritza iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. **Artikulua.** Batzar Orokorra, bazkide guztiekin osatua, hauen adierazpen eta borondatea jasotzeko organoa da.

Batzar Orokorreko ahalmenak dira:

- a. Elkartearen jarduera - Plan Orokorra onartzea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Taldearen gestioa onartzea.



- d. Estatutuen Aldaketak.
 - e. Elkartearen deuseztapena.
 - f. Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta gobernuko organo kolegiatuan egon daitekeen beste edozein kideren aukeraketa eta kargu-uztea baita ere bere ikuskapena eta kontrola.
 - g. Beste Elkarteenkin federazio edo konfederazio osatzea, edota horietatik ateratzea.
 - h. Ondasun higiezinaren xedapena edo besterentzea onarpena.
 - i. Behar bada, gobernu organoko partaideei ordaindu egin behar zaion erabakitzea.
 - j. Ohizko edo ezohizko kuoten finkapena, nahiz eta ahalmen hau delegatu daiteke akordio zehatz baten bidez Asanblada Orokorratik gobernuko organo batera.
 - k. Elkarre kideen behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
 - l. Beste organo sozialari ez egotzitako beste edozein konpetentzia.
8. **Artikulua.** Batzar Orokorra, ohizko eta ez ohiko saioetan bilduko da.
9. **Artikulua.** 7 a), b), c) artikuluetan aurreikusten diren Akordioak hartzeko, Batzar Orokorra gutxienez urtean behin, lehenengo hiruhilekoan, deitu beharko da.
10. **Artikulua.** Zuzendaritza Taldeak, bere iniziatiba propioagatik, edo elkarteko kideek % 20 eskatzen dutelako ahalmena du Batzar Orokorra ezohiko bilera deitzeko. Kasu hauetan bileraren arrazoiak edo helburuak adierazi beharko dira, eta gai hauetaz erabaki dezake:
- a. Estatutuaren aldaketak.
 - b. Elkartearen deuseztapena.
11. **Artikulua.** Batzar Orokorraren deialdiak, idatziz egingo dira eta bertan lekua, eguna, ordua eta gai ordena azalduko dira. Gutxienez 15 egun egon beharko dute deialdia eta Batzar egunaren artean. Nahi izanez gero, baina beti garbi adieraziz, lehenengo eta bigarren deialdiak egin daitezke, bata eta bestearen artean gutxienez ordu erdiko tartea egon beharko du.

Batzar Orokorrak, nahiz ohikoak edo ezohikoak, lehenengo deialdian boto eskubidea duen bazkideen heren bat azaltzen badira edo bigarren deialdian boto eskubidea duen bazkideen edozein zenbaki azaltzen dela, baliogarriak izango dira.

12. **Artikulua.** Batzar Orokorreko akordioak, bertan edo ordezkatuak dauden pertsonen, gehiengo soil batez onartuko dira. Dena dela, bertan edo ordezkatuak dauden pertsonen, gehiengo kualifikatua beharko dute zenbait akordio:
- Elkartearen deuseztapena.**
 - Estatutuaren aldaketak.
 - Ondasun higiezin xedapena edo besterentzea.
 - Gobernu organoko partaideen ordaintzea.
13. **Artikulua.** Batzar Orokorretan parte hartzeko, bazkideak bere ordezkapena eman diezaioke beste edozein bazkideari. Ordezkapen hau idatziz eman behar da eta Idazkarien eskuetan egon behar du, gutxienez saioa hasi baino 24 ordu lehenago.

ZUZENDARITZA TALDEA

14. **Artikulua.** Batzar Orokorraren zuzendaritza eta bere agindupean elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko duen gobernu organoa da. Erakundearen ordezkaria da eta soilik elkarteko kideek izan daitezke.
- Zuzendaritza Taldea, lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta bi bokalak osatuko dute. Gutxienez hiruhilekoan behin bildu beharko dira eta gizarte-jardueren garapen ona eskatzen duen bakoitzean.
15. **Artikulua.** Edozein Zuzendaritza Taldeko kide, justifikatutako kausarik gabeko ondoz-ondoko hiru alditan edo txandakako seitan zehar, seinalatutako bileretara etortzen ez bada bere kargu-uztea eragingo du.
16. **Artikulua.** Batzar Orokorrak izendatuko ditu Zuzendaritza Taldeko kideak eta bi urteko agintaldia izango dute. Kideen erdia berrituko dute urtero. Batzordeak berariaz baliogabetu ezean, kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.
17. **Artikulua.** Zuzendaritza Taldearen partaideak izateko ezinbesteko baldintzak izango dira:
- Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan bildutako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
 - Estatutuaren aurreikusiz bezala izendatuta izatea.
 - Elkarteko bazkidea izatea.
18. **Artikulua.** Zuzendaritza Taldearen karguak, behin Batzar Orokorrak izendatu eta norberak onartu, indarrean egongo dira.



Zuzendaritza Taldeko kideen dieta eta gastuak, Batzar Orokorrak erabaki ahal izango ditu.

19. **Artikulua.** Zuzendaritza Taldearen kideek, kargua hurrengo kasuetan utziko dituzte:

- a. Agintaldiko epearen muga-eguna.
- b. Dimititzen baldin badute.
- c. Bazkide izateari uzten diotenean, edo ezgaitasun-kausako arrazoiren batengatik.
- d. Batzar Orokorrak estatutuko 16.artikulua aplikatuz.
- e. Heriotza badago.

Kargu uztea a. kasuagatik gertatzen bada, Zuzendaritza Taldearen kideek jardunean jarraituko dute, kargu berrien aukerari ekingo dion lehen Batzar Orokorra ospatu arte. Kargu uztea gainontzeko kasuagatik bada, hau da, b, c, d, e kasuagatik, berezko Zuzendaritza Taldeak kargua beteko du behin-behineko izendapenaren bitartez. Hurrengo Batzar Orokorraren bileran onartu edo ezeztatuko da kargua. Ezeztatzen bada dagokion izendapena egingo da aipatzen den Batzar Orokorrean.

Organo honetako konposizioko aldaketak guztiak, Elkarteen Erregistroari komunikatuko zaizkio.

20. **Artikulua.** Zuzendaritza Taldearen funtzioak:

- a. Elkarteen kudeaketa zuzendu, Batzar Orokorrak ezarritako irizpideak jarraitu eta bere kontrolpean lan egin.
- b. Elkarteen aktibitateak programatu eta garatu.
- c. Urteko irabazi eta gastuen aurrekontua eta aurreko urteko kontu ekonomikoak Batzar Orokorrean aurkeztu onartu ditzan.
- d. Batzar Orokorraren gai ordena egin eta ohizko eta ezohizko Batzar Orokorraren deialdiak egiteko akordioak hartu.
- e. Bazkideek egindako proposamen edo iradokizunetan arreta jarri, dagozkion neurriak hartuz.
- f. Estatutu hauetan jasotako aginduak interpretatu eta haien hutsuneak osatu, beti ere, elkarteei buruzko indarreko lege araudiaren arabera.
- g. Batzar Orokorrak espresuki emandako eskumenak gauzatu, baldin eta ez badira bere eskumen eskusiboak.

21. **Artikulua.** Zuzendaritza Taldeak bilduko da Lehendakariak bere kabuz erabakitzen duenean edo bertako kideren batek eskatuta. Bileraren lehendakaritza, Elkarteen lehendakari esku egongo da eta bera ez badago adin gehiena duenaren esku.



Taldearen akordioak baliozkoak izan daitezen, kideen erdiak bertan egon behar dira eta bertaratutakoen botoen gehiengo osoz onartu behar dira.

Bileren aktak Idazkariak egingo ditu eta dagokion liburuan jasoko ditu.

PERTSONA BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

22. **Artikulua.** Lehendakariak, Elkartearen ordezkaritza legala, Zuzendaritza eta Batzar Orokorraren lehendakaritza bereganatuko ditu eta bertan hartutako akordioak gauzatuko ditu.

23. **Artikulua.** Lehendakariak ondoren aipatzen diren eskumenak izango ditu:

- a) Zuzendaritza Taldeko eta Batzar Orokorretako bileren deialdiak egin, eztabaidak bideratu, bozketetan berdinketarik balego kalitatezko botoaz erabakia hartu eta bilkurak amaitutzat eman.
- b) Elkartearen jarduera plana Zuzendaritza Taldeari proposatu, eginkizunak sustatu eta zuzenduz.
- c) Onartutako ordainketak agindu.
- d) Presazko gaiak erabaki eta Zuzendaritza Taldeak egingo duen hurrengo bileran haien berri eman.
- e) Batzar Orokorraren berariazko akordioz emandako eskumenak gauzatu, Batzarraren ahalmen eskusiboak direnak salbu.

IDAZKARIA

24. **Artikulua.** Idazkariari dagokio zehazki, sarbide eskaerak jaso eta bideratzea, bazkideen Erregistro Liburua eta fitxaz arduratzea eta Akten Liburuaren idazketa eta zaintza.

Era berean, Elkarteei dagozkien legezko arauen betetzea zainduko du, erakundearen dokumentu ofizialak gordeaz, liburu eta artxibo ofizialen edukia ziurtatuz eta zuzendaritza taldeen izendapenak eta elkartearen egoitza aldaketari dagozkion jakinarazpenak agintaritza eskudunari helarazi.

DIRUZAINA



25. **Artikulua.** Diruzainak, sarrerak eta egindako ordainketak ezagutzera emango ditu, urteko gastu eta sarreraren aurrekontua egin eta aurreko urteko kontuen berri emango du. Hori guztia Zuzendaritza Taldeari utziko dio eta horrek Batzar Orokorrari onartua izan dadin aurkeztuko dio.

BOKALA

26. **Artikulua.** Bokalez beren karguei datzazkien funtzioak izango dituzte, Zuzendaritza Batzordeko kediak diren aldetik (elkartearen zuzendaritza eta kudeaketa arrunta), baita batzordeak berak ere eskatzen dizkiena.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEEN ONARPENERAKO BALDINTZAK ETA PROZEDURAK ETA BAZKIDE MOTAK

27. **Artikulua.** Elkarteko bazkide, ondorengo baldintzak betetzen dituen edonor izan daiteke:

- a. Adinez nagusia edo gazte burujabea izatea eta bere eskubideak gauzatzeko lege baldintzatua ez izatea, ez eta epailearen erabakiz eskubideak mugatuak izatea.
- b. Pertsona juridikoen kasuan, dagokion organoak zuzenbidez hartutako akordioaren kopia aurkeztu beharko dute, zeinetan argi jasotzen den bazkide izateko borondatea eta haien ordezkari jardungo duen partaidearen izendapena.
- c. Adingabekoak balira, haien erantzukizuna eza ordezkari duen pertsonaren baimen idatzia aurkeztu beharko dute. Adin nagusira iritsi arte ezin izango dute Zuzendaritza Organoetan parte hartu. Batzarretan hitza eta bozka eskubidea izango dute.

28. **Artikulua.** Bazkide izan nahi duenak, bi kideen babesaz, idatziz, eskaera Lehendakariari zuzenduko dio. Zuzendaritza Taldeari jakinarazi ondoren, honek onartu ala ez erabakiko du. Erabakia, Batzar Orokorrean errekurritu ahal izango da.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. **Artikulua.** Bazkideek ondorengo eskubideak izango dituzte:

1. Elkarte Legearen edo Estatutuen aurka jotzen duten erabakiak eta jardunak inpugnatu ahal izatea, beti ere, eskatzaileak inpugnaturiko akordioaren edukia



- ezagutzeko aukera izan duen egunetik kontatzen hasita, berrogei egunetako epealdian.
2. Elkartearen gobernu eta ordezkatzeko organoen osaketaz, diru-kontuen egoeraz eta elkartearen jardunbideaz informatua izatekoa.
 3. Edozein unetan Elkarteko bazkideen izen deiturak, diru-sarrerak eta gastuen egoeraren berri, elkartearen jardunbidea ezagutu ahal izatea, beti ere datuen babeserako arauen arabera.
 4. Batzar Orokorretara deitua izatea, hitzez eta boto eskubidez parte hartzea eta hala erabakiko balu, beste bazkide batek ordezkatzua izatea.
 5. Estatutu hauen arabera Elkartearen zuzendaritza organoetan parte hartu, hautesle eta hautatzaile izanik.
 6. Indarrean dagoen legedian aurreikusitako fitxategian agertzea, eta elkarteak ikurra balu, erabiltzeko aukera izatea.
 7. Estatutuen kopia bana izatea eta zuzendaritza organoei eskaerak eta kexak aurkeztea.
 8. Taldeko jarduera sozialetan parte hartu eta bazkideen erabilera anitzetarako prestatutako lekuen erabileraz gozatzea (egoitza soziala, liburutegia..)
 9. Bazkideen betebeharrak ez betetzeagatik, zigor neurriak hartu behar balira, bazkideak aurrez behar bezala arrazoitua, informatua eta entzuna izateko eskubidea izango du.
 10. Edozein unetan elkartean baja ematea, betetzear dituen konpromisoak salbuetsiaz.

30. Artikulua. Bazkideek ondorengo betebeharrak izango dituzte:

- a. Elkartearen helburuak partekatu eta lorpenean parte hartu.
- b. Estatutuen arabera bazkideari dagozkion kuotak, gastu arruntak eta bestelako ekarpenak ordaindu.
- c. Estatutuetatik eratorritako beste eginkizunak bete.
- d. Elkartearen gobernu organoek arauen arabera hartutako erabakiak onartu eta bete.

BAZKIDE IZAERA GALTZEAZ

31. Artikulua. Bazkide izaera ondorengo kasutan galduko da:

1. Hilez gero, edo pertsona juridikoaren kasuan deseginez gero.
2. Borondatezko banaketaz.
3. Banaketa zigorrez, ondorengo baldintzaren bat ematen denean: Berariaz eta behin eta berriz Estatutuek arautzen dituzten betebeharren edo Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza taldeak hartutako erabakien gaineko arau hauste larria ematen denean.



ZIGOR ARAUBIDEA

32. Artikulua. Bazkideren batek, Estatutuaren arauak edo Zuzendaritza Taldeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak, behin eta berriz hautsiko balitu, berau zigortzeko ahalmena izango du Zuzendaritzak.

Zigorra jaso dezakete, bazkidearen eskubideak 15 egunez etetetik hasi eta behin betirako bazkide izaera galtzeraino, ondorengo artikuluetan araututakoaren arabera. Horretarako, Lehendakaritzak zigorra mereziko luketen jokaerak ikertzeko bidea zabaltzea onar dezake. Idazkaritza, organo izapidegile modura, ekimen horien ardura izango du eta hartu beharreko neurri egokiak Zuzendaritza Taldeari proposatuko dio.

Behin ikerketapean egon den pertsonari entzun ondoren, isuna jartzeko eskumena Zuzendaritza Taldearena (izapidegilea izan den Idazkaritzaren partaidetzarik gabe) izango da. Eragindako akordio hori Batzar Orokorraren aurrean errekurritu ahal izango da.

33. Artikulua. Berariaz eta behin eta berriz Estatutuek arautzen dituzten betebeharren edo Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Taldeak hartutako erabakien gaineko arau hauste larriagatik bazkideren bat Elkartetik baztertua izango balitz, Lehendakaritzak agindu liezaioke Idazkaritzari beharrezko informazioa lortzeko izapideak hastea eta horren arabera Lehendakaritzak erabaki lezake auzibidea artxibatzea edo bazkidea Elkartetik aldentzeko zigor txostena irekitzea.

34. Artikulua. Elkartetik aldentzeko zigor txostena irekiko balitz, behin gertakariak egiztatu ondoren, Idazkariak idatzi bat igorriko dio dagokion pertsonari, egozten zaizkion karguak jakinaraziz. Ondorengo 15 egunetan auzibidean dagoen bazkideak bere buruaren defentsan darizkiona arrazoitu dezake. Behin epe hori igarota Zuzendaritza Taldearen hurrengo bileraren gai zerrendan sartuko da gaia eta horrek darizkiona erabakiko du, beti ere izapidegile modura aritu den Idazkariaren botorik gabe.

Elkartetik bazkidea aldentzeko akordioa dagokionari igorriko zaio, eta hartutako erabakiaren aurka hurrengo Ezohiko Batzar Orokorrean errekurtsioa aurkezteko eskubidea duela jakinaraziko zaio. Hurrengo hiru hilabetetan Batzarra deitu ez balitz, gai

hori eztabaidatzeko berariaz deitu beharko litzateke. Bitartean, Zuzendaritza Taldeak, auzibidean dagoen pertsona bazkide eskubiderik gabe uztea erabaki lezake eta Zuzendaritza Taldekidea balitz, kargua betetzeko eskubidearen etena erabaki beharko luke.

35. **Artikulua.** Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.

36. **Artikulua.** Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan, berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako, bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUAK

37. **Artikulua.** Elkartearen sortze agirian dituen ondasunak. Ez dauka sorrerako ondarerik.

38. **Artikulua.** Elkartek garatu beharreko ekintza sozialak aurrera eramateko aurreikusitako baliabide ekonomikoak ondorengoak izango dira:

- a. Elkartean sortzerakoan ordaindu beharreko kuotak.
- b. Adostutako hilabete edo aldizkako kuotak.
- c. Ondasun produktu eta dagozkion eskubideak, hala nola, subentzioak edo diru laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
- d. Elkartek, Zuzendaritza Taldeak adosten dituen, legezko aktibitate bitartez jasotzen dituen diru sarrerak, beti ere estatutu xedearen barruan daudelarik.

Asoziazio eta ekonomia jarduera urtekoa izango da eta bere itxiera/amaiera urteko abenduak 31ean emango da.

Elkartek, aktibitate desberdinetatik jasotako etekin ekonomikoak, zerbitzuetatik jasotakoak gehiturik, elkartearen xedeak betetzeko soilik erabili daitezke, inoiz izan direlarik etekin hauek elkarteko kideen artean banatu, ezta ere beraien ezko-kide edo beraiekin elkar bizi diren pertsonen artean, afektibitate harremana dutenen artean, ezta

hauen familia kideekin, ezta dohain lagatzea irabazi asmoak dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTOEN ALDAKETA

39. **Artikulua.** Estatutuen aldaketa bazkideen Ohiko Batzorde Orokorrean adostu beharko da, helburu horretarako bereziki deitua. Zuzendaritza Taldeak hiru bazkidez osatutako taldeak, proiektuaren kodifikazio txostena idatziko dute, hauek zuzenduriko aginduak jarraituz eta proiektuaren amaiera data jasoaz.

40. **Artikulua.** Behin aldaketa proiektua idatziz jaso ondoren, lehendakariak ospatzen den lehenengo Zuzendaritza Taldearen bilerako gai-zerrendan jasoko du. Zuzendaritza Taldeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Onartua izaten den kasuan, Zuzendaritza Taldean hurrengo batzarraren gai-zerrendan sartzea adostuko du, edo, horretarako bakarrik egingo da deialdian.

41. **Artikulua.** Batzarraren deialdiari Estatutuaren aldaketaren txostena gehituko zaio, bazkideak egokitze dituzten zuzenketak Idazkaritzara zuzendu ditzaten, eta hauek Batzar Orokorrean agertuko dira, beti ere idazkaritzak Batzarra ospatu baino zortzi egunen lehenagoko epean jaso baditu.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

42. **Artikulua.** Elkartea arrazoi hauengatik desegingo da:



1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkarte desegitea agintzen duelako.
6. Elkaratearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

43. **Artikulua.** Elkarte deseginez gero, erabakia hartu duen ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Taldeko 3 kidek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenen bati eman beharko zaio.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

